

EROSKI -K NAFARROAKO PRODUKTUEN FERIA GASTRONOMIKO BATEKIN OSPATU DU BERE 50. URTEURRENA IRUÑEAN

Iruñea, 2019ko urriaren 21a.- [EROSKI](#)k atzo ospatu zuen, Iruñeko Takoneran, Nafarroako Produktuen Feria Gastronomikoa, 50. urteurreneko ospakizunen harira. Ekitaldian, Nafarroako hogeita bat ekoizle izan dira beren produktuak ezagutarazten eta balioan jartzen eta haien kontsumoa sustatzen.

Hamaiketan, inaugurazio ekitaldi bat egin zuten, Iruñeko Udaleko alkateorde Maria Echavarrirekin eta Nafarroako Gobernuko Landa eta Ingurumen sailburuaren mende dagoen Landa Garapenerako zuzendari nagusi Fernando Santaferekin. Horietaz gainera, bertan izan ziren EROSKIko Erakunde Harremanetarako zuzendaria, Jose Antonio Yela, eta EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertziala, Asun Bastida, Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresetako ordezkari nabarmenekin.

Feria 12:00etan zabaldu zuten, eta 20:30 arte iraun zuen, eta foro ireki baten modukoa izan zen, non ezagutu eta esperimintatu egin baitzitekeen tokiko produktu baten atzean nolako tradiziozko historia dagoen, nolako lehengai bikainak, nolako lekuak eta nolako egiteko era bereziak. Tokiko produktuak dastatzeko eremu zabal bat ipini zuten, eta doako jarduerak izan ziren edonorentzat. Horretaz gain, Nafarroako ardoa eta Erronkariko gazta eman zuten dastatzera. Halaber, lehiaketak eta sariak ere izan ziren, eta musika ekitaldiekin eta herri kirolekin girotu zuten azoka.

Azoka osoan, aukera izan zen pintxoak eta edari solidarioak hartzeko Reyno Gourmet produktuen eta Vianako Printzea ardoaren eskutik; etekinak, 5.000 euro baino gehiago, dohaintzan emango dituzte Sarayren kausarako, hau da, Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkartarako.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Tokiko produktuen salmentak %42 igo dira bi urte honetan

EROSKIk ia %42 igo du Nafarroako produktuen salmenta bi urte honetan, eta nabarmentzekoa da %89 igo dela Nafarroako haragiaren salmenta; batez ere, Nafarroako AGBaren haragia, EROSKI Natur markaren bidez saltzen duena, eta EROSKI Natur oilaskoa, Nafarroako Gourmet zigilua duena.

Tokiko elikagai freskoen salmenta %44 handitu zaio EROSKIri Nafarroan 2016tik hona, eta elikagaien salmenta orokorra, berriz, %39 baino gehiago denbora tarte berean. Horrez gain, nabarmentzekoa da %43 igo dela esnekien salmenta, batez ere EROSKI gamako esnea atera duelako; erabat Nafarroako esnea da, eta Esne Produktu Iraunkorraren zigilua du.

EROSKIk 3.300 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 500 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 220 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero. Kooperatiba lanean ari da Teknologia eta Azpiegitura Agroalimentarioetako Nafarroako Institutuarekin (INTIA), bertako produktuak Reyno Gourmet markarekin sustatzeko; marka horren 350 erreferentzia merkaturatzen ditu. Hain zuzen, duela gutxi, zigilu hori duten barazki kontserben gama gaineratu du SELEQTIA marka propioarekin.

Horrez gain, EROSKIk Nafarroako Kluster Agroalimentarioan parte hartzen du; kolektibo bat da, sektore askotako 30 bat korporazioekin osatua, eta horren helburua da Nafarroan nekazaritzako elikagaigintzan dihardutenak lerrokatzea Europako berritasun eta iraunkortasun politikekin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)